

## 9. EKINTZA PLANA



## I. ardatza: Produktuak sortzea eta bisortzea segmentu estrategikoetan

### JARDUN ILDOAK

#### I.1. Turismoaren ikuspegitik gutxiegi erabilitako baliabideei balioa ematea

#### I.2. Produktu berriak sortzeko bultzada/pizgarriak

### Jardunak

#### I.1. Turismoaren ikuspegitik gutxiegi erabilitako baliabideei balioa ematea

I.1.1. *Lehentasun-irizpideak* ezartzea turismo-ahalmena duten baliabideei balioa emateko: erakargarria, Euskadiren eskaintza segmentu/merkatu jakin batean bereizteko laguntza, eskaintza finkatzea segmentu estrategiko jakin batean, etab.

I.1.2. *Adostutako jardueren programa* bat definitzea (lehentasun eta segmentu estrategikoak kontuan hartuta) honako erakunde hauekin:

- a) *Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailarekin, natura-turismo iraunkorra bultzatzearen, gastronomia-erakargarria finkatzearen eta gastronomia-turismoa eta enoturismoa garatzearen.*
- b) *Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin, natura-turismo bereizia eta iraunkorra garatzearen.*
- c) *Kultura Sailarekin, Turismoaren lehiakortasunerako Estrategia berriaren eta Kultura Planaren arteko sinergiak aprobetxatzeko aukeran oinarrituta.*
- d) *Garraio eta Herri Lan Sailarekin, itsas bidaietako turismoari eta turismo nautikoari lotutako baliabideei balioa emateko turismoaren ikuspegitik.*

I.1.3. *Turismo-baliabideei segmentu estrategikoetan balioa emateko lankidetzako eta/edo laguntzako sistematik diseinatzea eta abian jartzea, honako hauekin:*

- a) *Foru Aldundiekin* (koordinazioa baliabide bakoitzari buruzko eskumena duten Departamentuekin).
- b) *Turismo-lankidetzarako lurralde-enteekin* (laguntza tekniko eta finantzarioa).
- c) *Udalekin* (batez ere hiru hiriburuetakoekin eta Euskadi hiriko-kulturako turismoaren segmen-tuan posizionatzeko helburuarekin). (Lurralde guztietako baliabideak uztartzeko aukera bultzatzea.)

I.1.4. *Seinaleztapen turistikoari buruzko Plana* egiteko bultzada ematea (lehendik dagoen Eskuliburuan oinarrituta), eta horretan inplikaturik dauden entitateekin *gauzatze*ko konpromisoak ezartzea.

#### I.2. Produktu berriak sortzeko bultzada/pizgarriak

I.2.1. *Inbertsioak sustatzea* erakarpen-baliabideetan, azpiegituretan eta zerbitzuetan, *Euskadi segmentu estrategikoetan eta/edo bezero espezifikoen posizionatzea ahalbidetzearen:*

- *Laguntza selektiboak eta pizgarriak* (agente pribatuei eta tokiko nahiz eskualdeko entitateei) lehiakortasun-abantailan eta produktu propio edo bereizgarrietan oinarritutako produktuak sortzeko.
- *Inbertitzaileak animatzeko eta erakartzeko jarduera proaktiboa* garatzea, hain zuzen ere:
  - gure Herriko inbertitzaileak (publikoak eta/edo pribatuak);
  - kanpokoak (nazioarteko proiektzioa duten inbertitzaileak).

I.2.2. *Lurzorua kudeatzeko politika* jakin bat garatzea, interes estrategikoa duten turismo-produktu berriak sortzea ahalbidetu edo erraztearen (*ikus 2.1.2*).

I.2.3. Turismoaren arloan balioa emandako baliabideetan oinarritutako produktuen sorkuntzan sektorearen inplikazioa/enpresen partaidetza bultzatzea.

**2. ardatza: Enpresa berriak sortzea eta enpresa sarea indartzea****JARDUN ILDOAK****2.1. Enpresa-ekimena bultzatzea (enpresa berrien sorkuntza)****2.2. Enpresen arteko lankidetzaren indartzea dimentsio egokia lortzearen****2.3. Oraingo enpresa-sarearen modernizazioa (honako ardatz hauekin lotua: 4. ardatza: Kalitatea eta Berrikuntza, eta 5. ardatza: Giza kapitala eta Jakintzaren Kudeaketa)****Jardunak****2.1. Enpresa-ekimena bultzatzea (enpresa berrien sorkuntza)**

2.1.1. Turismo-arloko ekintzaletzari erabateko laguntza emateko berriazko ildoak garatzea:

- Ekintzailetza-orientazioa turismoarekin zerikusia duten ikastetxeetako programetan txertatzeko aukera bultzatzea (erdi- eta goi-mailako profesionalak, unibertsitarioak).
- Laguntza tekniko espezifiko eta aholkularitza ematea ekintzaileei, horretarako propio prestatu-riko teknikariak hartuta; alegia, langile espezializatuen laguntza ematea turismo-ekintzaile berriei, edo aholkulariak erabiltzea.
- Enpresen sorkuntzarako laguntza selektiboko irizpideak ezartzea, sektoreari balio bereizgarria ematearren.
- Laguntzak inbertsiora egokitzea.

2.1.2. Lurzorua kudeatzeko eta hiri-arloko birgaitze eta plangintzako politikak adostea funtsezko arloetan (adib.: hirigune historikoak, portu-zonak, landa-inguruneak), negozioak eta zerbitzuak jartzeko aukera bultzatuz, zona jakin bateko eskaintza eta turismo-erakargarria areagotzearen (artisautza, saltoki bereziak, jatetxe-arloko establezimenduak, turismo aktiboko enpresak, parke tematikoak, ostalari-tzako eta/edo aisiako konplexuak, etab.).

2.1.3. Turismo-arloko enpresa eta enpresaburuen mesederako giroa sortzea:

- Sektorearen eragin ekonomikoari buruzko informazioa hedatzea (Etorkizuneko sektore estrate-gikoa, aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmena duena).
- Sektoreko enpresaburua aintzat hartzea (sariak, komunikazio- eta irudi-kanpainak, etab.).

2.1.4. Merkatuei buruzko ikerlanak eta eskaeraren joerei buruzko azterlanak garatzea (ikus 5.3.1).

**2.2. Enpresen arteko lankidetzaren indartzea dimentsio egokia lortzearen**

2.2.1. Hausnarketa Foro/Talde bat sortzea, kluster modukoa (ikus 6.4.1).

2.2.2. Tokiko enpresa taldeak/lankidetzak-formulak sortzeko laguntza dimentsio egokia lortzearen (ABEEak, marka komunak, klubak, interes ekonomikoa duten taldeak —sektorekoak nahiz zeharkakoak—, kateak eta frankiziak).

2.2.3. Tokiko inbertitzaileen eta sektorearen arteko lotura sustatzea eta arrisku-kapitaleko fondoak bultzatzea.

**2.3. Oraingo enpresa-sarearen modernizazioa (honako ardatz hauekin lotua: 4. ardatza: Kalitatea eta Berrikuntza, eta 5. ardatza: Giza kapitala eta Jakintzaren Kudeaketa)**

2.3.1. Ekipamenduak eta instalazioak modernizatzeko eta eguneratzeko ildoari eustea.

2.3.2. Enpresen kudeaketaren modernizazioa bultzatzea (antolamendua, kalitatea, etab.) Ikus 4. ardatza.

## 3. ardatza: Euskadik merkatuetan turismo-helmuga gisa duen presentzia indartzea

## JARDUN ILDOAK

**3.1. Produktuak, segmentuak eta merkatuak jomugan hartuta, sustapen- eta merkaturatze-politika garatzea arian-arian**

**3.2. Euskadik turismo-helmuga gisa Sarean (Internet) duen presentzia areagotzea, transakzioetarako aukerak txertatuz**

**3.3. Turismo Informazioko Sistemaren garapena**

## Jardunak

**3.1. Produktuak, segmentuak eta merkatuak jomugan hartuta, sustapen- eta merkaturatze-politika garatzea arian-arian**

3.1.1. *Sustapen eta Merkaturatze Plan bat diseinatu eta hedatzea. Honako hauek identifikatu behar ditu plan horrek:*

- *Lehentasunezko merkatuak, produktuen eta segmentuen arabera.*
- *Dauden turismo-produktu guztientzako komunikazio-estrategia eta marken plana (markak eta azpi-markak eta erabilera-plana), eskaeraren eta Euskadirentzat estrategikoak diren segmentuen arabera (komunikazio-kanpainak agentzia espezializatuekin, presentzia Europako prentsan, etab.).*
- *Produktu eta/edo segmentu guztiak sustatzeko egokienak diren baliabideak eta euskarriak.*
- *Kasu bakoitzerako egokienak diren merkaturatze-kanalak.*

3.1.2. *Programak eta jardunak koordinatzea sustapen-ekintzak garatzen dituzten beste instituzio, organismo eta agente publikoekin (nola gure Herrikoak hala kanpokoak) eta etengabeko presentzia edukitzea lehentasunezko zatitza identifikaturiko merkatuetan.*

3.1.3. *Sektoreko agente pribatuak sustapen-ekintzetan parte hartzera bultzatzea, merkaturatzeko laguntza bide gisa (ekintzetan parte hartzea eta/edo garatutako ekintzei buruzko informazioaren eta emaitzen berri ematea sektoreak errentagarri bihurtzeko; agente jakin batzuei beren segmentuan nola baitaiteko ordezkari ematea; etab.).*

3.1.4. *Produktuen marketing-programen garapenerako/produktu espezifikoaren klubetarako laguntza ematea segmentu estrategikoetan.*

3.1.5. *Lehentasunezko merkatuetan merkaturatzeko laguntza ematea.*

**3.2. Euskadik turismo-helmuga gisa Sarean (Internet) duen presentzia areagotzea, transakzioetarako aukerak txertatuz**

3.2.1. *Sektoreko agenteek IKTak erabiltzeko bultzada ematea (2.3 puntuarekin lotua, baita 5. ardatzarekin ere: Giza kapitala eta jakintzaren kudeaketa).*

3.2.2. *Euskadiko Turismo Atari berria garatzea, edukien kalitatea hobetuz eta funtzionalitate eta zerbitzu berriak txertatuz, turistarentzat eta sektorearentzat erreferentziazko tresna indartsua izan dadin:*

- *Etengabeko elikatze- eta eguneratze-prozesuak diseinatzea, zuzentzea eta ikuskatzea (Proiektuaren kudeaketa eta zuzendaritza).*
- *Sektorearen lankidetzaren ahalbidetzea atariaren sorkuntzan, kudeaketan eta mantentze-lanetan.*
- *Atariaren ahalmena aprobetxatzea:*
  - *Balio-katearen maila guztien arteko komunikazioa-harremana hobetzeko. Extranet profesionalentzat, interneteko topagune gisa, bertatik turismo-sektorearentzat interesgarria den informazioa eskuratzeko aukera izatearren (turisten portaera eta postasun-maila, estatistikak, egoerataxostenak, merkatu-ikerlanak, kudeaketa-tresnak, etab.).*
  - *Segmentazioan eta pertsonalizazioan oinarritutako marketing-estrategia berria garatzea.*
  - *Merkataritza-elektronikoa erraztea, produktuen eta zerbitzuen eskaintzaileak sor daitekeen eskaerarekin harremanetan jarritz.*

3.2.3. *B2B eta B2C plataformen sorkuntza bultzatzea, horietan oinarrituta produktu eta zerbitzu turistikoen marketing- eta merkaturatze-ekimenak garatzearren.*

.../...

.../...

### **3.3. Turismo Informazioko Sistemaren garapena**

3.3.1. *Turismo Bulegoen Euskal Sarea finkatzea*. Itourbask Sarearen ezarpen efektiboa:

- Proiektuaren arduradun espezifiko izendatzea.
- Datu-basea etengabe eguneratzeko prozesua diseinatu eta antolatzea.
- Prestakuntzako eta kalitateko prozesuei eustea turismo-informazioko bulegoetan.

3.3.2. *Itourbask Sarearen funtzionalitate berriak garatzea eta hedatzea* (adib.: neurrira egindako paketeak edo pakete pertsonalizatuak sarearen bidez egiteko aukera, profila eta motibazioak kontuan hartuta; turismo-segmentuen arteko lotura egiteko aukera eta eskaintza iragazkortzea).

3.3.3. *Turismo-informazio euskarri guztiak egokitzea* (merkatuaren eskakizunetara eta Sustapen eta Merkaturatze Plan berriaren arabera).

## 4. ardatza: Berrikuntza eta kalitatea enpresa eta helmuga turistikoetan

## JARDUN ILDOAK

## 4.1. Berrikuntzaren eta kalitatearen garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa

## 4.2. Turismo Berrikuntzako Plan bat diseinatzea

## 4.3. Kalitatea Kudeatzeko Sistemak ezartzea

## Jardunak

## 4.1. Berrikuntzaren eta kalitatearen garrantziari buruzko sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa

4.1.1. *Sentsibilizazioko/barne-sustapeneko programa (sektorerara bideratua) garatzea berrikuntzaren eremuan:*

- Adibide jakinen bidez, berrikuntzaren (antolamenduaren eta teknologiaren arlokoa) kontzeptu zabala txertatzea sektorean, *emaitza ona izan duten esperientzien berri emanez (aurkezpenak eta/edo bisitaldi teknikoak in situ).*
- Turismoko enpresa, instalazio eta/edo helmugetan turismo-berrikuntzan gauzaturiko *praktika onenetarako pizgarriak* sortzea.

4.1.2. Sektoreko kalitateari buruzko sentsibilizatzeko programei eustea.

4.1.3. *Turismo-kalitatea azken kontsumitzailearengan sustatzeko kanpaina bat* garatzea:

- *Preskriptoreengan eta salmenta-agenteengan* eragitea, sistema ezagut dezaten eta sistemaren abantailak balioetsi ditzaten.
- *Azken kontsumitzaileari* kanpainaren berri helaraztea, establezimendu (edo helmuga) ziurtatu batera joatearen alde balioetsi dezan.
- Publizitate-kanpainetan enpresa edo helmuga ziurtatuei lehentasuna ematea.

4.1.4. *Turismo-kontsumitzailearen bermeen sistema garatzea eta egokitzea:*

- *Turismo-enpresak euskal arbitraje-sistemari atxiki* dakizkion bultzatzea.
- Kontsumo Zuzendaritzarekin batera *arbitraje-sistema lasterra* sustatzea.

## 4.2. Turismo Berrikuntzako Plan bat diseinatzea

4.2.1. Turismo sektorearentzat I+G+b-ko estrategia diseinatzea eta hedatzea, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Berrikuntza estrategiari eta Turismoaren Sektoreko Lehiakortasunari buruz egingo den Planari jarraiki.

4.2.2. Zientzia eta Teknologiarako Euskal Sarean txertatutako organismo bat abian jartzea, estrategia hori gauza dezan (IKZ). Horretarako, turismo-sektorearekin lankidetzan aritu beharko da.

4.2.3. Teknologia-berrikuntzari eta teknologiarako eta turismoa elkartzen dituzten proiektuei laguntza ematea.

4.2.4. Turismo-sektoreko enpresa berritzaileak eta teknologia-oinarriko enpresak sortzeko laguntza.

4.2.5. Teknologia berrien aplikazioari buruzko jakintza turismo-prestakuntzako programetan biltzea.

## 4.3. Kalitatea Kudeatzeko Sistemak ezartzea

4.3.1. Turismoko Q ziurtagiria eta ISO araua Euskaliten bidez ezartzeko lanei eustea, turismo-azpisektoreek gutxieneko kalitate-estandarrak pixkanaka erabiltzen hasia ahalbidetuz, eta honako hauek bereziki aintzat hartuz:

- Kalitate-sistematik lortutako abantailak/onurak aztertzea eta hedatzea.
- Prestakuntza ekintzak eta laguntza ekonomikoak areagotzea eta agenteen sustapen-ekintza espezifikoa garatzea, betiere kalitate-irizpideak bilduta.

4.3.2. Kalitate-planak ezartzea helmugan.

4.3.3. Kalitate-planak ezartzea turismo-bulegoetan.

4.3.4. Sektoreko Elkarteekiko hitzarmenak zabaltzea, KKSak (kalitatea kudeatzeko sistemak) ezartzea bultzatzeko.

## 5. ardatza: Giza kapitala eta jakintzaren kudeaketa

## JARDUN ILDOAK

- 5.1. Hezkuntzako-prestakuntzako sistemari laguntza ematea eskaintza sektorearen premietara egokitzearren**
- 5.2. Tokiko eta eskualdeko profesional, enpresaburu eta agente publikoen prestakuntzarako laguntza**
- 5.3. Unibertsitate-ikerkuntza eta jakintzaren sorkuntza eta kudeaketa sustatzea**
- 5.4. Sektoreari loturiko lanbideak aintzat hartzeko eta gizartean balioesteko bultzada**

Jardunak
<p><b>5.1. Hezkuntzako-prestakuntzako sistemari laguntza ematea eskaintza sektorearen premietara egokitzearen</b></p> <p>5.1.1. Hezkuntza eta Unibertsitate Sailarekin eta Lan Sailarekin lankidetzat sustatzea eta <i>topagune</i> bat erabiltzea —turismoko eta hari loturiko eremuetako hezkuntzako-prestakuntzako agenteek parte hartuta, baita turismo-azpisektoreetako ordezkariak ere—, hezkuntzako-prestakuntzako eskaintza sektoreko premietara egokitzearren.</p> <p>5.1.2. Sailen arteko lankidetzat bultzatzea <i>helmugako giza baliabideak</i> (zuzendariak, turismo-enpresetako langileak, turismoarekin loturiko industrietako langileak, jendea artatzen duten profesionalak, turismoarekin lotura duten funtzionario eta enplegatu publikoak, etab.) <i>gaitzeko/prestatzeko plan global/integrala egitearren</i>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza espezifiko eta sektoreko premietan oinarritua (jarduerak, segmentuak, etorkizunerako aukerak, etab.).</li> <li>• Hirueletasuna sustatzea.</li> </ul> <p>5.1.3. <i>Etengabeko prestakuntzako programa eta ekintzetan parte hartzea errazten duten mekanismoak</i> abiarazteko premia adieraztea organismo eskudunei.</p> <p>5.1.4. <i>EAEko turismo eta ostalaritzako ikasleen praktika bidezko prestakuntzarako laguntza-jardunak</i> garatzea.</p>
<p><b>5.2. Tokiko eta eskualdeko profesional, enpresaburu eta agente publikoen prestakuntzarako laguntza</b></p> <p>5.2.1. Tokiko eta eskualdeko agente publiko eta pribatuen <i>turismo-kudeaketako prestakuntzako</i> Programak diseinatzea eta kudeatzea.</p> <p>5.2.2. <i>Kanpoko turismo-sustapeneko profesionalen prestakuntzarako laguntza ematea.</i></p> <p>5.2.3. <i>Zuzendaritza-arloko Garapeneko Programak</i> diseinatzea eta kudeatzea (sektoreko enpresa pribatuetako kudeatzaileak eta kudeatzaile publikoak), SPRIrekin batera.</p>
<p><b>5.3. Unibertsitate-ikerkuntza eta jakintzaren sorkuntza eta kudeaketa sustatzea</b></p> <p>5.3.1. <i>Euskal turismo-industriari buruzko Jakintza estrategikoa</i> sortzea eta kudeatzea (<i>informazio eguneratua eta eskuragarria industria-arlo guztiari</i>):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismo Estatistikaren Euskal Sistema finkatzea.</li> <li>• Azterlan eta ikerlanak garatzea (lehentasunezko merkatuetako eskaeraren joerak eta portaera, etab.), eskaintzaren eta eskaeraren arteko egokitzapen dinamikoa orientatzearen.</li> </ul> <p>5.3.2. Prestakuntza-zentroetan eta Unibertsitatean turismoarekin zerikusia duten gaien buruzko <i>ikerkuntza-ekintzak</i> gauzatzeko laguntza ematea (<i>4. ardatzarekin lotua</i>).</p>
<p><b>5.4. Sektoreari loturiko lanbideak aintzat hartzeko eta gizartean balioesteko bultzada</b></p> <p>5.4.1. Komunikazio-kanpaina espezifiko.</p>



## 6. ardatza: Lurraldearen turismo-arloko kudeaketa

## JARDUN ILDOAK

**6.1. Turismo-lankidetzako enteen lurralde-sarea osatzea, finkatzea eta indartzea, eskaintzaren integratioko eta dinamizatioko elementu gisa**

**6.2. Turismoa Dinamizatzeko Planen fase berri bati ekitea —integrazio- eta operazio-fasea—**

**6.3. Lurraldeen eta hirien artean, bisitarien mugigarritasuna eta fluxuak sustatzea**

## Jardunak

**6.1. Turismo-lankidetzako enteen lurralde-sarea osatzea, finkatzea eta indartzea, eskaintzaren integratioko eta dinamizatioko elementu gisa**

6.1.1. Tokiko eta eskualdeko enteekin behar diren lankidetzak-mekanismoak adostea, Euskadiko turismo-lankidetzako enteen *sarea osatzeko*.

6.1.2. *Tokiko eta eskualdeko eremuko turismo-arloko kudeatzaile eta sustatzaileekiko lankidetzak* hobetzea, sinergiak aprobetxatzeko, biderketa-eraginak bilatzeko eta sektore pribatua helmugan inplikatzeko bide gisa:

- Jakintzaren eta tresnen berri ematea (profesionalizazioa), ideien sorkuntza, berrikuntza, arazoak konpontzea.
- Laguntza ekonomikoak eta proiektu jakinetarako aholkularitza eta laguntza teknikoak.

6.1.3. *Turismo-helmugan kudeaketaren modernizazioa bultzatzea.*

**6.2. Turismoa Dinamizatzeko Planen fase berri bati ekitea —integrazio- eta operazio-fasea—**

6.2.1. Turismoa Dinamizatzeko Planen bigarren belaunaldia udal- eta eskualde-mugak gainditzeko baliatzea, Euskadik segmentu estrategikoetan duen posizionamendua hobetzearen.

**6.3. Lurraldeen eta hirien artean, bisitarien mugigarritasuna eta fluxuak sustatzea**

6.3.1. Helmugako Informazio-sistemak hobetzea (Itourbask sarea) (ikus 3.3.1.).

6.3.2. Produktuaren sorkuntza bultzatzea eta Euskadi helmuga sustatzea, segmentu estrategikoen arabera (ikus 1. eta 3. ardatzak).

6.3.3. Sail eskudunekin behar den elkarrizketa izatea, konektibitatea eta joan-etorrian ibiltzeko erraztasunak hobetzearen.

**7. ardatza: Turismoaren lehiakortasuna indartzeko tresnak eta euskarriak****JARDUN ILDOAK****7.1. Gidaritza eta instituzio-ekintzarako ahalmena****7.2. Sektore-antolamendua. Araudi-garapena, ikuskaritza eta kontrola****7.3. Lankidetzaren publiko-pribatua garatzea****7.4. Turismoko Kluster bat sortzea****7.5. Gizarte guztia turismoaren garrantziari buruz sentsibilizatzea**

<b>Jardunak</b>
<b>7.1. Gidaritza eta instituzio-ekintzarako ahalmena</b>
<p>7.1.1. <i>Turismo Sailburuordetzaren egungo antolamendu-egitura berrikustea eta baliabideak hornitzea (giza baliabideak eta ekonomikoak), jokaleku berriaren eta aurreikusitako estrategiaren arabera.</i></p> <p>7.1.2. <i>Barne-kudeaketako prozesuak eta tresnak hobetzea eta ezartzea, jardun publikoaren efikazia, eraginkortasuna eta kalitatea bermatzearren.</i></p> <p>7.1.3. <i>Turismoa Sustatzeko Agentzia abian jartzea Euskadin, ekonomia-sustapeneko irizpideak kontuan hartuta.</i></p> <p>7.1.4. <i>Instituzioen arteko lankidetzaren areagotzea.</i></p>
<b>7.2. Sektore-antolamendua. Araudi-garapena, ikuskaritza eta kontrola</b>
<p>7.2.1. <i>Turismo-azpisektore guztiei buruzko araudia garatzea eta eguneratzea.</i></p> <p>7.2.2. <i>Erreklamatzeko, ikuskatzeko eta zigortzeko sistemak eta prozedurak hobetzea.</i></p>
<b>7.3. Lankidetzaren publiko-pribatua garatzea</b>
<p>7.3.1. <i>Sektoreak politiken diseinuan, gauzatze-fasean eta jarraipenean eta kontrolean parte hartzeko bideak ezartzea (Aginte Koadroa).</i></p> <p>7.3.2. <i>Dauden foroak sistematizatzea, indartzea eta operatibo bihurtzea, bi aldeek exijentzia-maila areagotuz, betiere informaziozko haratago iristeko irizpidea kontuan hartuta, sektoreko agenteekin komunikatzea eta itunak egitea lortze aldera.</i></p>
<b>7.4. Turismoko Kluster bat sortzea</b>
<b>7.5. Gizarte guztia turismoaren garrantziari buruz sentsibilizatzea</b>
<p>7.5.1. <i>Sentsibilizazio-programa</i> espezifiko bat diseinatu eta abian jartzea, honako hauek jomugan hartuta:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Instituzioen eremua: sektore estrategiko baten aldeko apustua.</li> <li>• Euskal biztanleria oro har.</li> </ul> <p>Programa honako hauetan oinarritzea: turismoaren garrantzi eta eragin ekonomikoan ez ezik, turismoaren gizarte-eraginkizunean eta Euskadiren irudia kanpoan proiektatzeko duen zereginean ere.</p> <p>7.5.2. <i>Jaurlaritzari eta instituzio-egitura guztia laguntza ematea gure Herriaren irudia kanpoan zabaltzeko (Euskadi Marka).</i></p>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO